

# Juan Bautista Agirre, euskal idazlearen liburutegia, 1742-1823

PELLO JOXE ARANBURU\*

Juan Bautista Agirre Elola Astearan jaio 1742an eta 1823an hil zen. Hil aurretik, ohean zetzala, frantsek balaz zaurituta, bere eskuz testamentu olografoa egin zuen, 1819ko irailaren hogeita bederatzian, hain zuzen.

## I. JUAN BAUTISTA AGIRREAREN AZKEN TESTAMENTUA

Testamentu horretako hogeita boskarren txatalean hauxe dio.

«... declaro que tengo una libreria decente y muy propia para un eclesiastico, y es mi voluntad que separandose de ella las obras de Herrera, Boutelaou, Año cristiano, los diez y seis tomos de Pluche, traducidos por Terreros, el compendio dela historia de España por Duchesne, y

Mariana, que quedaran para mi sobrino D.n Jose Domingo juntamente con la hermosa estampa bordada del Corazon de Jesus, y el estante donde esta se halla, todo lo demas dela libreria con los dos estantes sea para el uso de mi sobrino D.n Juan Ignacio de Larrondobuno Pro. para durante sus dias á



Juan Bautista de Aguirre

\* Idazbe-ikertzailea.

quien se le entregara con inventario formal; y si despues dela muerte de este hubiese algun hijo de D.n Jose Domingo mi sobrino, que sea eclesiastico ó siga la carrera eclesiastica quedará para el uso de este, mas á falta de este, ó muerto este, queda dicha libreria y será para el uso de los RR. PP. Misioneros del Colegio de de Zarauz»<sup>1</sup>.

Juan Bautista 1823ko ekainaren hamazazpian hil zen, bere testamentu lanak luzatu egin ziren eta 1824ko abenduaren hogeita zortzian J.B. Larrunbide notarioak testamentua olografoaren ziurtapena gauzatu zuen, baina zer gertatu zen bere liburutegiarekin?

Alde batetik, Asteasuko Agirrerren azken testamentuko hitzek eta beste aldetik, Emiliano Ozaeta beneditarrak esandakoek Zarauzko Frantziskotarren liburutegira zuzendu ninduten eta hantxe aurkitu nituen Juan Bautistak erabilitako liburutegiko liburu-zerrenda eta eranskinak<sup>2</sup>. Juan I. Larrondobuno, illoba apaizak, 1823ko uztailaren hogeita bian Asteasun ehun eta laurogeita bost obra bereganatu zituen, denen artean, laurehun bat liburuki osatzen zutenak<sup>3</sup>.

## II. JUAN BAUTISTAREN LIBURUEN SAILKAPENA

Gehienak liburu erlijiosoak ziren, Teologia eta pastoralgintzari zegozkienak, normala zen bezala, baina ez-erlijiosoek, hots profanoekin erlazionatuek multzo bikaina osatzen zuten: historia, geografia, zuzenbidea, hiztegiak, literatura eta euskal gaiak<sup>4</sup>.

1. Teologia
  - 1.1. Aita Santu, Kontzilio eta dotrinei buruzko obrak.  
8,17,18,39,46,51,52,53,54,55,56,57,58,59,62,85,115 eta 180 denetara 18 obra.
  - 1.2. Teologia moral  
33,60,92,107,120?,135,167,171,176 eta 179 denetara 11 obra.
  - 1.3. Teologia dogmatika, teologi eskolak...  
49,70,78,91,114,117,126?,128,141 eta 184 denetara 10 obra.
  - 1.4. Biblia  
34,43,50 eta 121 denetara 4 obra.
  - 1.5. Globalak eta sailkatu gabeak  
7,88,90,93,123,131,175,181,182,183 eta 186 denetara 12 obra.
2. Zuzenbidea<sup>5</sup>
  - 2.1. Zuzenbide zibila  
19,65,66,67,104,111,118,137,145,146,148,149,151,153,  
156,157,158,159,160,168,169 eta 192 denetara 23 obra.
  - 2.2. Zuzenbide kanonikoa  
64,116,136,138,139,142,143,144,147,190 eta 191 denetara 11 obra.
3. Gai espiritual eta erlijiosoak

1. GAO, Tolosa, PT, IPT, 1844 leg., 159 or.

2. Zarauzko San Juan Bautista Konbentuko Frantziskotarren liburutegia, Caja 30,N,8.

3. Zerrenda hori 192 zenbaki dituen bada ere, 24,166-166 zenbakietan akatsak daude eta horietan ez dago obrarik.

4. Obren kopuruei begira egin dut sailkapenaren ordena eta jarraian agertuko diren zenbakiek Juan Bautistaren liburuen inbentariokoei erreferentzia egingo diete. Ikusi artikulua honen azken zatian.

5. Juan Bautistaren liburutegiko zerrendan Jose Antonio bere anaia eta zuzenbidean doktore zenaren liburuak ere aurkitzen dira.

- 3.1. Liburu aszetikoak  
3,27,48 eta 95 denetara lau obra.
- 3.2. Santuen bizitzak  
79,90 eta 94 denetara 3 obra.
- 3.3. Gai erlijiosoa, baina zehaztu gabeak  
1,2,4,5,6,14,21,28,36,40,47,72,81,82,84,97,99,100,103, 105,109,112 eta 130 denetara 23 obra.
4. Gai ez-erlijiosoak
  - 4.1. Historia eta geografia  
9,16,45,68,74,119,134 eta 174 denetara 8 obra.
  - 4.2. Literatura  
35,89,114,125,173,177 eta 188 denetara 7 obra.
  - 4.3. Hiztegiak  
119,122,123 eta 170 denetara 4 obra.
  - 4.4. Beste zenbait obra  
73,75 eta 185 denetara 3 obra.
5. Sermoiak eta oratoria
  - 5.1. Gaztelera itzulitako sermoiak  
26,30,44,63,76 eta 132 denetara 6 obra.
  - 5.2. Gaztelera idatzitako sermoiak  
77,83,87 eta 178 denetara 4 obra.
  - 5.3. Beste hizkuntzetan zeuden sermoiak  
61 eta 69 denetara bi obra.
  - 5.4. Oratoria obra 1.
6. Euskal gaia eta euskara
  - 6.1. Euskaldunekin erlazionatutako obrak  
15,22,25,32 eta 96 denetara 5 obra.
  - 6.2. Euskararekin erlazionatutako obrak  
11,12 eta 13 denetara 3 obra.
  - 6.3. Euskarazko liburuak  
23,41 eta 170 denetara 3 obra.
7. Erabat sailkatu gabeak  
10,20,29,31,37,38,42,71,98,101,102,106,108,110,124,133,140,150,152,  
154 eta 172 denetara 21 obra.

Goiko sailkapenean ageri denez, lehen multzoan, teologian sailkatuak dira ugariena, hain zuzen 55 obra, bigarrenean, zuzenbidean 35 obra, hirugarrenean ere ugari 30 obra, laugarrenean ez gutxi 22 obra, boskarrenean, bildumak direnez, franko liburuki eta seigarren multzoan, berriz, garai hartako kopuru egokia osatzen zutela uste dut. Beraz, jabeak zioen bezala «...**una libreria decente y muy propia para un eclesiastico**», nik ere gauza bera aitortzen dut.

### III. JUAN BAUTISTAREN EUSKAL SENA

Zenbait obraren iruzkina burutuko dut lehenik eta ondoren aztertzen ari naizen liburutegian aurkitu dudana hutsunea esango.

Larramendiren obra bakarra ageri da Juan Bautistaren liburutegian, baina hura oinarrizkoa, hiztegia. Mendiburuk, 1759-1760, Iruñean argitara eman zituen hamaika liburukiak dira euskal libururik ugariena Juan Bau-

tistaren liburutegian, hots «Jesusen Amore-Nequeei dagozten cembait otoitzgai». Larramendiren hiztegiarekin batera oinarrizko beste obra bat izan zen hau Asteasuko Agirrerentzat. Mogelen «Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac» izenaz ezagutu eta Iruñean, 1800ean argitara emandako obra da Juan Bautistak askotan aipatu eta eliztarrei sarritan aholkatu ziena.

Juan Bautistaren liburuen artean eta euskararen bibliografi iturri izate horretan hiru horiek nabarmenduko nituzke eta eman ditudan ordena berean, gainera.

Jarraian emango ditudanei ere ez diet ezer kentzen, baina beste eragin mota bat izan zutelakoan nago, hau da euskaraz idaztearen motibazioa areagotu zioten eta ez euskara bera, erdal liburuak baitziren.

Lorenzo Hervás Panduro-ren hiru obrak, «Viage Estático», «Historia del Hombre» eta «Catalogo de las lenguas», zenbaiten iritzi Humboldt-en aintzindari izanik, euskaldunak biziki bultzatu zituen beren hizkuntza estimatzera.

Era berean, Don Sanadon beneditarrak idatzi eta Diego de Lazkanok itzuli eta Tolosan, 1786an argitaratu zen «Ensayo sobre la Nobleza de los Bascongados...» liburuak euskal foruak maitarazi eta euskal sena piztuaraziko ziolakoan nago.

Juan Bautistak liburutegi egoki eta garai hartako apaiz batentzat bikaina zuela lehen esan badut ere, hutsuneak ere nabari zaizkio. Izan ere, Juan Bautista Agirre Elolaren liburutegian Kardaberaz eta Ubillos-en ale bakar bat ere ez agertzeak harritu egin nau. Larramendiren beste obrarik eta gainera, Astarloa, Añibarro eta beste euskalkietakorik ez ikusteak nere ikuspuntuak aldarazi dizkit, gaurko egoera eta orain dela bi mendeetakoa ez baita bera.

#### IV. ASTEASUKO ERRETORETXEAN DAUDEN ZENBAIT LIBURU

Don Hipolito Usabiaga, Asteasuko erretore hil berriaren etxean ikusi ditut beste hamabi obra, hogeita hamabost liburu, batzuk Juan Bautistaren garaikoak, eta beste batzuk aintzinagokoak. Gehienak parrokiako zigiluaz markatuta daude. Nere ustetan, Juan Bautistak erabili zituen eta, gainera, hamasei liburuki behintzat Juan Bautistaren liburutegiko zerrendan ageri dira. Zorritzarrez, liburukiek beren baitan ez daukate Agirrereren aztarnarik, sinadura edo markarik, alegia, nonbait ez zuen bere liburuak sinatzeko ohiturarik, baina bere sermoiekin erabat loturik ikusi ditut. Kronologikoki argitalpen data-ri begiraturaz ordenatu ditut eta hara hemen banan-banan guztiak.

1. Doctor Don Jose de Barzia, 1684, «Despertador christiano de Sermones doctrinales», 2. tomoa, Madrid <sup>6</sup>.

2. L'Abbe de Bretteville, 1691, «Essais de Sermons Pour Tous des Jours du Carême...», 4 tomo, Paris.

3. «Les sermons de feu le R. Terrason, Petre de L'Oratoire pour le Carême», 2. eta 4. tomoak, Paris, 1736 <sup>7</sup>.

6. BARZIA Y ZAMBRANA, José de, XVII-XVIII mendeetakoa, andaluz. Liburu horrek argitalpen ugari izan zituen, lehena Granadan, 1678. Agirrereren zerrendan 87 zenbiarekin ageri dena eta hau bat bera ote da?

7. GASPAR TERRASSON, 1680-1752, frantsesa; Lyonen 4 liburuki, sermoiez osatuak argitara eman ziren.

4. FLÉCHIER, M. de, 1741, «Panegyriques et autress sermons», Paris <sup>8</sup>.
5. MONTARGON, P. Hyacinthe, 1755-1765, «Dictinnaire Apostolique a l'usage de MM. les Curesdes villes et de Campagne», Paris, 2-13bis tomoak, 13bis honek «Tables des discours et des desseins» ditu <sup>9</sup>.
6. «Bibliothèque Portative DES PETRES de l'Eglise», Par M. x x x, 1759, 3 tomo <sup>10</sup>.
7. GIRARD, Par M., 1760, «Les Petits Prônes ou Instruccions Familieres, Principalement pour les Peuples de la Campagne», 2. tomoa, Lyon. Autore honen zita ugari egin zituen Juan Bautistak bere sermoi liburuetan.
8. «La Morale EVANGELIQUE expliquée Par les SS. Peres, ou Homélieés choisiers...», 2. tomoa, Paris, 1763.
9. NATALI, Alexandro, Ordinis FF. Predicatorum, 1769, «Expositio literalis eta moralis sancti evangelii Jesu Christi secundum Mattheum...» eta beste liburuki bat «Expositio... secundum Marcum, Joannem, et Lucam Evangelistas», 2 tomo <sup>11</sup>.
10. «Sermones del ilmo. Señor Don Juan Bautista Massillon, Presbytero de la Congregación del Oratorio...», 2,3,5 eta 10. tomoak, Madrid, 1775, itultzailea: Pedro Diaz de Guereñu. Massillon hori 1663-1742 urteetan bizi izan zen.
11. DÉCHAUSSE, Carme, Prédicateurs du Roi, 1785, «Sermons du Pere Elisée», 4. tomoa, Paris.
12. «Discursos, predicables o las homilias del ilustrísimo y venerable Señor Don Fray Geronimo Bautista de Lanuza del orden de predicadores...», 4. tomoa, Madrid, 1803.

## V. JUAN BAUTISTARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO BAIEZTAPE-NAK

1. Juan Bautistak hizkuntza ugaritan idatzitako liburuak erabili zituen: gaztelera, latina, frantsesa, euskara, italiera... eta bere liburutegian zeuden hizkuntza anitzetako hiztegiek ideia bera sendotzen didate.
2. Liburuen argitalpen urteek zera sinalatzen dute: bibliografia alorrean oso informazio eguneratuaren jabe zela, obra argitaratu berri-berriak eskuratu baitzituen.
3. Obra horiek Europako hiri sakabanatuatan argitaratuak ziren, Madrid, Barcelona, Paris, Lyon... Denen artean Pariskoak azpimarratuko nituzke, asko baitira.
4. Juan Bautistaren eta Asteasuko erretoretzeko liburuek Frantziako sermoiekiko zaletasuna adierazten dute. Ideia bera oraindik gehiago zehaztuz,

8. Fléchier, Esprit M., 1632-1710, frantsesa.

9. MONTARGON, Roberto Francisco de, (konbentuko izena, berriz, Jacinto de la Asunción), 1705-1770, frantsesa, liburuen lehen argitalpenak Parisen, 1752-1758an. Beraz, Asteasuko erretoretxean daudenak ez dira lehen argitarapenekoak, 1755-1765koak baitira, baina oso gertukoak bai.

10. Nerekiko Montargon, lehen aipatutako autore beraren Patristika liburuek dira, eta liburuki baten barruan eskuz idatziriko aparteko orri batean, Elizako lehen gurusoak zein urtetan jaio eta hil zireneko zerrenda bat ikusi dut. Juan Bautistaren letra dela uste dut.

11. Ikusi Juan Bautistaren liburutegiko 60. zenbakiko obra artikulua honen azken partean. Nere ustez bi liburukiak obra bera da eta Agirrek sarritan aipatzen du autore hau.

San Felipe Nerik sortu eta Europan zehar hedatu zen Oratorio izeneko Kongregazioarekiko joera nabari zaio.

Alde batetik, Juan Bautistaren liburutegiko inbentarioan ageri diren obrak, bere sermoietako aipamen eta aberastasuna eta, beste aldetik, Astea-suko erretoretxean dauden liburuen argitalpen data eta autoreak ikusita, kointzidentzia handiak somatu ditut. Autore honen obren azterketa sakon batek argituko ditu ia susmo soilak besterik ez diren nere baieztapen hauek.

## VI. JUAN BAUTISTA AGIRRE ELOLAREN LIBURUTEGIAREN INBENTARIOA

«Certificamos los infraescritos Testamentarios del difunto Don Juan Bautista de Aguirre que su libreria consta de las obras siguientes.

- 1.<sup>a</sup> Las obras del V. Fr. Luis de Granada seis tomos
- 2.<sup>a</sup> Las del V. Puente cinco tomos
- 3.<sup>a</sup> Exercicios del P. Rodriguez un tomo
- 4.<sup>a</sup> Doctrinas practicas del P. Calatayud tres tomos <sup>12</sup>
- 5.<sup>a</sup> Juicio de los Sacerdotes del mismo un tomo
- 6.<sup>a</sup> Exercicios espirituales para los sacerdotes del mismo
- 7.<sup>a</sup> Cano de locis un tomo <sup>13</sup>
- 8.<sup>a</sup> Concionater Catechisticus de Cuniliati un tomo <sup>14</sup>
- 9.<sup>a</sup> Historia critica de España por Masdeu tres os-somosre o <sup>15</sup>
- 10 Proyecto economico por V. Vaio un tomo
- 11 Viage estatico de Ervas quatro tomos <sup>16</sup>.
- 12 Historia del hombre por el mismo autor seis tomos
- 13 Catalogo delaslenguas por el mismo autor 4.º, y 5.º
- 14 Forma Cleri tres tomos
- 15 Nobleza delos Bascongados por Lazcano un tomo
- 16 Historia de Mexico por Solis. tres tomos <sup>17</sup>
- 17 Cabasucio. Noticia Conciliorum untomo en 8.<sup>a</sup>
- 18 Cabasucio Noticia Conciliorum Canonum (?) un tomo
- 19 Practica universal forense por Elizondo dos tomos <sup>18</sup>

12. PEDRO CALATAYUD S.J. Espainia osoan sermoilari oso ezaguna izan zen. Bere bi obra nagusi: «Catecismo de la Dotrina Cristiana» eta «El Magisterio de la fe y la Razon», Madrid 1761. IKUS ALTUNA, Patxi S.J., 1984, «La Auténtica Biblioteca de Larramendi», Muga aldizkaria, 78 or.

Oinoharretan erabiliko ditudan datuak, beste ezer gehitzen ez badut, behintzat, «Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo Americana, Barcelona, Jose Espasa é Hijos Editores» hiztegiak izango dira.

13. Melchor CANO DOMINGOTARRA, 1509-1560, «De Locis Theologicis», Salamanca 1563. Teologia hamar adarretan banatu zuen Salamankako eskolako teologoak eta beste hainbeste liburukitan argitaratu.

14. FULGENCIO CUNILIATI, 1685ean Frantzian jaio eta Venecian hil 1759an, teologoa eta sermoilari domingotarra.

15. Juan Francisco MASDEN, Palermon jaio 1744an eta hil Valencian 1817an, historialaria. «Historia crítica de España y de la cultura española», Madrid, 1783-1805, 20 tomo.

16. LORENZO HERVÁS Y PANDURO S.J., espainola, jakintsua eta idazlea, 1735-1809, «Historia de la vida del hombre» 7 vol., Madrid 1789-99, «Viaje estático al mundo planetario» 4 vol., Madrid 1793-1799 eta «Catalogo de las lenguas de las naciones conocidas, y numeración, división y clases de estas segun la diversidad de sus ideomas y dialectos» 1800-1805. Hizkuntzalaritza garaikidea eta Iberoak, Zeltak eta Baskoindarrak aztertzen ditu IV, V eta VI. tomoetan.

17. Antonio de SOLIS RIVADENEIRA, 1610-1686, historialari eta poeta madrildarra. «Historia de la conquista de México, población y progresos de la América Septentrional, conocida por el nombre de Nueva España», Madrid 1684, argitarapen ugari.

18. JOAKIN ELIZONDO, 1660-1735, Nafarroko legegizona. «Novisima Recopilacion de leyes», 1735, «Colecion Elizondo» izenez deitua. Enciclopedia General Ilustrada del P.V. 414 or.

- 20 Petavio tres tomos
- 21 Noceti dos tomos
- 22 Cartas de San Francisco Xavier en latin dos tomos <sup>19</sup>
- 23 Moguel. Instrucion sobre elsacramento dela Penitencia (?) en bascuenze un tomo  
24 <sup>20</sup>
- 25 Xavier añadido un tomo
- 26 Instrucciones de San Carlos Borromeo un tomo <sup>21</sup>
- 27 Introduccion alavida devota por Sales Un tomo <sup>22</sup>
- 28 Denche doctrina cristiana un tomo
- 29 Temporal y eterno un tomo
- 30 Sermones sobre varios asuntos traducidos por Labarre el 1.º, 5.º 7 7.º tomos
- 31 Mapa de Arcanos del Doctor Sierra cinco tomos
- 32 Palacios contra bailes un tomo <sup>23</sup>
- 33 Elordui, el Espíritu dela Iglesia sobre la administracion sacramento dela peniten  
cia un tomo
- 34 Erra, Historia del viejo y nuevo Testamento
- 35 Don Quixote seis tomos
- 36 Regula Cleri un tomo
- 37 Autos acordados un tomo digo quatro tomos
- 38 Nueva recopilacion siete tomos <sup>24</sup>
- 39 Veritas Concilii Burgofonte inhisi dos tomos
- 40 Compendio historico della Religion dos tomos
- 41 Los Otoitzgayes (sic) de Mendiburu, juego incompleto, diez tomos
- 42 Tyrocinium Teologicum un tomo
- 43 Scriptura sacra informa meditationum un tomo
- 44 El Belarmino con exemplos, esplicacion dela doctrina en castellano un tomo
- 45 Defensa de la inquisicion Dos tomitos por Macanaz <sup>25</sup>
- 46 Esplicacion dela doctrina cristiana por Fr. Juan de Santo Tomas un tomo <sup>26</sup>
- 47 Meditaciones del Sagrado corazon de Jesus un tomo
- 48 El Quempi
- 49 Belarmino de Controversiis quatro tomos <sup>27</sup>
- 50 Belarmino esplanatio inpsalmis un tomo
- 51 Instruccion pastoral de Benedicto 14.º un tomo <sup>28</sup>
- 52 Benedicto 14 demisae Sacrifitio un tomo
- 53 El Bulario del mismo dos tomos
- 54 Cassus Conscientiae del mismo un tomo
- 55 Institutionum ecclesiasticarum editio secunda: un tomo de ocho deid
- 56 De festis un tomo de id.

19. AZCONA, Jose Maria, 1952, «Bibliografía de San Francisco de Javier», Pamplona, 696-718 zb-  
kia. Torsellini (Horacio) idazlearen oharrak San Frantzisko Xabierren eskutitzei buruz.

20. Ez dago obraren izenik.

21. San Carlos Borromeo, 1538-1584, «Instrucciones pastorales, Homilias y Discursos y Cartas»,  
Milan, 1747-48.

22. San Francisco de Sales, 1567-1622. Autore honen sei obra inbentariatu zituzten Agirrereren al-  
bazeek.

23. PALACIOS LEZETA, Frantzisko Antonio, 1727-1804, Zarauzko misiolaruia. Añamendi  
E.G.I.P.V.

24. Ikus 19.ean esana.

25. Melchor RAFAEL DE MACANAZ, 1670-1760, Albaceteko politikari eta idazlea. «La historia cri-  
tica de las Inquisicion».

26. Fr. Juan de Santo Tomas (Poinsat), 1589an Lisboan jaio eta 1644an hil, eta bere obra «Expli-  
cacion de la doctrina cristiana» Valencian 1644an argitaratu zen.

27. Roberto Francisco ROMULO BELARMINO CARDENALA S.J., 1542-1621. «De Controversiis» as-  
kotan argitaratua.

28. Benedicto XIV Aita Santu, 1675-1768 eta obra asko bere garaian argitaratu ziren eta J.B. Agi-  
rrek erosi zituen.



- 57 Dissertationes deid. tres tomos  
 58 De Sinodo Diocesana (sic) dos tomos deid  
 60 Teologia Dogmatico moralis de Natal Alexandro dos tomos <sup>29</sup>-  
 61 Pouget, Institutiones Catolicae dos tomos <sup>30</sup>  
 62 Ystoria (sic) del Concilio Tridentino por Palavino un tomo  
 63 El Tomasino tres tomos <sup>31</sup>  
 64 Prosperi Fagnani Comentariorum dos tomos en uno <sup>32</sup>  
 65 Constitutiones de Oviedo un tomo  
 66 Constitutiones antiguas de Pamplona un tomo  
 67 Las modernas un tomo  
 68 Mariana Historia de España dos tomos <sup>33</sup>  
 69 Dictionario Apostolico doce tomos <sup>34</sup>  
 70, Dissertatio de infalibilitate S.P. por Evera un tomo  
 71 Viva, dostomos  
 72 Actas sinceras delos Santos Saturnino, Onesto, y Fermin-  
 73 Niños Expositos dostomos  
 74 Venida de Santiago á España untomo  
 75 Muratori Filosofia moral dostomos <sup>35</sup>  
 76 Sancti Petri Crisologi Sermones untomo <sup>36</sup>  
 77 Platicas doctrinales de Eguileta trestomos  
 78 El segundo, tercero, y quarto tomos de Suarez<sup>37</sup>  
 79 Vida de San Francisco deSales un tomo  
 80 Vida de San Carlos Borromeo untomo  
 81 Luz de verdades Catolicas untomo  
 82 El Estandarte dela Santisima Cruz por Sales un tomo-  
 83 Sermones del mismo dos tomos  
 84 Cartas del mismo dos tomos  
 85 Catecismo deSan Pio Quinto untomo <sup>38</sup>  
 86 Antoine, Teologia moral dostomos <sup>39</sup>  
 87 Despertador cristiano dos tomos <sup>40</sup>  
 88 Nuix un tomo <sup>41</sup>  
 89 Empresas de Saavedra untomo <sup>42</sup>

29. Alejandro Natali domingotarra eta frantsesa, 1639-1724. Idazle oparoa.

30. Francisco AMADO POUGET, 1666-1723, teologo frantsesa eta sermoilaria. Obra postumoa, 1725ean Desmoletak «Institutiones Catolicae» argitaratu zuen, lehenago F.A. Pouget-ek 1702an Parisen argitaratu eman zuen «Catéchisme de Montpellier» izeneko liburua osatuz.

31. Luis THOMASSIN, 1619-1695, San Felipe Nerik sortu zuen Oratorioa izeneko Kongregazioko teologo frantsesa. Obra asko idatzi bide zituen.

32. Prosper Fagnani, italiarra, «Jus canonicum edo Comentariorum...», 1681. Lazkaoko Beneditarren liburutegian.

33. Juan DE MARIANA S.J., 1536-1623, historialaria, «Historia general de España» eta beste asko. Obra hau Juan Bautistak Jose Domingo bere ilobari utzi zion. Ikusi artikulu honetako lehen aipamena.

34. Asteasuko erretoretxean dagoen obra bera.

35. Ludovico ANTONIO MURATORI, 1672-1750, historilari, arkeologo eta italiarra, «Filosofia morale».

36. Pedro CRISOLOGO, 406-450, bere 176 sermoi argitaratu eman ziren.

37. Francisco SUAREZ S.J., 1548-1617, teologo espainola. Obra ugari eta sarri argitaratuak.

38. San Pio V, Niguel Chislieri, 1501-1572, Aita Santu, Trento kontziliuoko Dotrinak honen izena darama.

39. Pablo GABRIEL ANTOINE S.J., 1679-1743, frantsesa, teologia eta filosofiako irakaslea.

40. Asteasuko erretoretxean ere badago beste antzeko obra edo agian bera.

41. Juan eta Rafael Nuix bi anaia jesuita eta katalanak, 1740-1802 urteetan bizi izan ziren, biak teologo eta irakasle izan ziren.

42. Diego SAAVEDRA FAJARDO, 1584-1648, idazle eta diplomatikoa espainiarra, «Idea de un Principe Politico Cristiano representado en 100 empresas» argitaratu zuen. Argitarapen ugari izan zituen eta izen herrikoia «Empresas» ematen diote.



- 90 Deoblationibus ad altare disertatio, untomo
- 91 Tractatus Theologicus de Charitate por Errera untomo-
- 92 Instruccionen dogmatico morales sobrela doctrina del catecismo romano por Frontaura Quatro tomos
- 93 Indice espurgatorio un tomo
- 94 Vida de San Luis Gonzaga untomo
- 95 Molina de Sacerdotibus untomo <sup>43</sup>
- 96 Ystoria (sic) de Nuestra Señora de Itziar un tomo
- 97 Paz interior un tomo
- 98 Cabalieri un tomo
- 99 Barufaldo ad Rittuale un tomo
- 100 Merati dos tomos <sup>44</sup>
- 101 El Galindo un tomo
- 102 Graveron siete tomos
- 103 Misionero parroquial quatro tomos
- 104 Instituciones de Castilla un tomo
- 105 Verdaderos entretenimientos de Sn Francisco de Sales un tomo
- 106 El Pintor cristiano de Ayela dos tomos
- 107 Teologia moral tres tomos
- 108 Vanespen cinco Tomos
- 109 Las obras de Feijoo <sup>45</sup>
- 110 Las demostraciones de Sarmiento dos tomos
- 111 Instituciones Hispaniae por Torres un tomo
- 112 Desagravio de los autores q.ofende el Barbadino por Codorniu uno <sup>46</sup>
- 113 Exemplos y virtudes de Valerio Maximo un tomo<sup>47</sup>
- 114 Variaciones delas Iglesias Protestantes por Bosuet cinco tomos <sup>48</sup>
- 115 Summa Conciliorum Ispaniae tres tomos.(Gerora marra jarraituen gainean «4 tomos»
- 116 Praenotionum Canoniarum libri quinque, su autor Joannes Doupati(?)
- 117 Teses Bilbilitanae por Bartolome Povio un tomo
- 118 Las leyes de Partida tres tomos
- 119 Diccionario geografico tres tomos
- 120 Larraga un tomo <sup>49</sup>
- 121 Calmet, ocho tomos <sup>50</sup>
- 122 Calepino de siete lenguas en un volumen <sup>51</sup>
- 123 Diccionario de Terreros quatro tomos <sup>52</sup>
- 124 Hortus pastorum Marchantii un tomo
- 125 Fabulas de Fedro
- 126 Covarrubias, opera opera (sic) omnia dos tomos

43. Antonio DE MOLINA, Burgosko Mirafloresen kartujo, «Instrucción de Sacerdotes...», liburu hau askotan argitaratua izan zen.

44. Cayetano MARIA MERATI, Italiako idazle erlijioso eta teatinoa, 1668-1744.

45. Benito J. FEYJÓO MONTENEGRO, literato beneditarra, 1676-1764.

46. Antonio CODORNIU S.J., idazle, sermoilari katalana, 1699-1770, «Dolencias de la crítica» eta «Observaciones sobre el Barbadino» idatzi zituen.

47. Lehen mendeko historialari latinoak jarraipen literario luzea izan zuen mendeetan zehar. Horrela, «Los nueve libros de los ejemplos y virtudes en lengua castellana por Diego Lopez (Madrid), 1654an argitaratu ziren.

48. Jacobo BENIGNO BOSSUET gotzai frantsesa, sermomoilari eta idazlea, 1627-1704, «Histoire des variations des Eglises protestantes (Paris 1687)». Argitalpenak eta itzulpenak asko dira.

49. Francisco LARRAGA, domingotarra, naparra, teologoa eta idazlea, 1671-1724?, «Pruntuario de la Teologia Moral», Iruñean 1706, Auñamendi, EGIPV.

50. Agustin CALMET frantsesa, beneditarra, exejeta eta idazlea, 1672-17657. Liburu asko.

51. Latinetik beste sei hizkuntzetara egindako hiztegia.

52. Esteban TERREROS Y PANDO S.J., filologoa, irakaslea eta idazlea. «Diccionario castellano con las voces de ciencias y artes, y sus correspondientes en las tres lenguas, francesa, latina e italiana» eta «Diccionario de caligrafos».

- 127 El Menoquio tres tomos  
 128 Biluart Cursus Teologicus tres tomos <sup>53</sup>  
 129 Petra, Commentaria ad constitutiones apostolicas cinco tomos  
 130 El Ligorio en un tomo <sup>54</sup>  
 131 La Croix tres tomos  
 132 Houdri ocho tomos <sup>55</sup>  
 133 El digeto diez y ocho tomos  
 134 Historia pontifical un tomo  
 135 Reinfestuel, Teologia moral dos tomos <sup>56</sup>  
 136 Reinfestuel jus Canonicum seis tomos en cinco  
 137 Carlebalio dejudiciis untomo  
 138 Ferraris, nueve tomos en cinco <sup>57</sup>  
 139 Adicion a Ferraris un tomo  
 140 Lesio un tomo <sup>58</sup>  
 141 Los Salmantinenses siete tomos <sup>59</sup>  
 142 Onorati Leonardi de usuris untomo  
 143 Mostazo, Tractatus de Causis piis  
 144 Tractatus de donationibus regiis  
 145 Tractatus de partitionibus bonorum un tomo  
 146 Tractatus, De censibus un tomo  
 147 Sacrae Rotae Romanae decisiones un tomo  
 148 Garcia de Beneficiis dos tomos  
 149 Alfabetum juridicum de D.n Egidio Castejon dos tomos  
 150 Rojas dos tomos en uno  
 151 Olea tractatus de cesionejurium un tomo <sup>60</sup>  
 152 Praxis eccae saecularis de Gomez Bayo id  
 153 Comentarium absolutissimum ad leges Tauri y varias resoluciones por D.n Antonio Gomez tres tomos en dos <sup>61</sup>  
 154 Biblioteca concionatoria de Tovias Loner el 4.º tomo-  
 155 De Hispanorum Primogeniorum origine por Molina untomo <sup>62</sup>-  
 156 Tractatus de Transactionibus un tomo  
 157 Tractatus de Suplicatione por Salgado un tomo <sup>63</sup>  
 158 Centuria decissionum novissimarum Sacre Romanae Rotae por Salgado un tomo  
 159 Salgado de Regia protectione

53. Carlos RENATO BILLUART teologo frantsesa, 1685-1757, «Summa S. Thomae hodiernis Academicarum moribus accomodata sive Cursus Theologiae...», Lieja 1746-51, 19 vol; impresa en 4 volúmenes con el titulo Cusus theologiae unibersalis, Viceburg, 1758; Venecia 1761, 3 volm...».

54. S. ALFONSO MARIA DE LIGORIO, 1696-1787, idazle oparoa.

55. Vicente HOUDRY S.J., sermoilari frantsesa, 1631-1729. Argitalpen eta itzulpen ugari egin zaizkio.

56. Anacleto REINFESTUEL teologo alemana, XVIII. mendekoa, «Jus Canonicum Universum» sei tomo.

57. Lucio FERRARIS, kanonista eta frantziskotarra, Alejandrian jaio ? eta 1750ean hil. Bolonian argitaratu ziren bere obrak 1746an eta Madrilen 1786an itzuli gaztelerara.

58. Leonardo LESSIUS S.J., teologoa, 1554-1623.

59. Ikus Espasa hiztegian **Salamanca** hitza, 120 or. Eskola horretako irakasle-ikasleen kuadroa dakar.

60. ALFONSO OLEA, XVII. mendeko jurista espainola, «Tractatus de Cesione jurium et actionum theoreticis...», Valladolid, 1652.

61. Antonio GÓMEZ, XVI. mendekoa, jurista espainola, «Ad legis Tauri Comentarium absolutissimum», Lyon 1602. Argitalpen asko.

62. Luis DE MOLINA MORALES, XVI. mendean Sevillan jaioa, idazlea eta jurista, «Hispaniarum primogeniorum origine ac natura», argitalpen ugari.

63. Frantzisko SALGADO DE SOMOZA 1644an hil zen, jurista, espainola eta idazlea. Bere obrak: «Labyrinthus creditorum...», «De regia protectione», «Tractatus de suplicatione ad Santissimum á Bullis eta Literis Apostolicis...».

- 160 Labirintus creditorum concurrentium ad litein dos tomos-  
161- 166<sup>64</sup>  
167 Suma de todas las matarias morales por Torrecilla dos tomos<sup>65</sup>  
168 Sanchez de Matrimonio tres tomos  
169 Tractatus dere criminali un tomo  
170 Diccionario Trilingüe de Larramendi dos tomos  
171 Institutuonum moralium in quibus universae giationes ad conscientiam  
pertinentes tractantus tres tomos  
172 Curia Filipica un tomo  
173 El criticon de Gracian dos tomos<sup>66</sup>  
174 Istoria gral de Francia quatro tomos  
175 Tractatus de Studiis monasticis tres tomos  
176 Gonzalez Mateo Suma moral dos tomos<sup>67</sup>  
177 El Orinoco ilustrado dos tomos.(Gerora beste letra batez gehituta «solo se  
encuentra uno)<sup>68</sup>  
178 Carabantes, Platicas doctrinales, dos tomos<sup>69</sup>  
179 Manual de Confesores y penitentes un tomo  
180 Tesaurus Doctrinae cristianae untomo  
181 Viva Teologia escolastica dos tomos  
182 Cardenas Crisis Teologica un tomo  
183 La Selve, Annus apostolicus, dos tomos  
184 Amort, Derevelationibus et aparitionibus, un tomo<sup>70</sup>  
185 Fisica esperimental del abate Nolet del 2.º hasta el 6.º tomo  
186 El Evangelio en triunfo quatro tomos  
187 Corpus juris civilis dos tomos  
188 Ciceronis omnia opera dos tomos  
189 Berdadero metodo de predicar untomo  
190 Institutiones juris ecclesiastici de Berardi untomo<sup>71</sup>  
191 Berardi, Commentaria in jus ecclesiasticum universum quatro tomos  
192 Berardi, in canones quatro tomos

Asteasu diez ysiete dejulio de mil ochocientosy veinte y tres

D.n Juan Ignacio de Larrondobuno (errubrika)

José Domingo de Aguirre (errubrika)

D.n Pedro Antonio de Legarra (errubrika)

He recibido de los Pres. testamentarios de mi difunto tio los libros que  
contiene este inventario. Y para que conste firme. Asteasu veinte ydos de  
agosto de mil ochocientos veinte ytres.

D.n Juan Ignacio de Larrondobuno (errubrika)

64. Hutsune bat dago zenbaki horietan, obrarik ez baita ageri.

65. Martin TORRECILLA karmeldarra eta idazle espainola, XVII. mendekoa. Obra asko ditu.

66. Baltasar GRACIAN MORALES, S.J., 1601-1658, idazlea, «El criticon» nobela alegorikoa.

67. Fr. Diego GONZALEZ MATEO 1751n Eusebio Anmort-ekin eztabaida bat izan zuen.

68. Jose GREMILLA misiolari eta idazleak 1741ean «El Orinoco ilustrado» argitara eman zuen Ma-  
drilen.

69. Jose GARABANTES, 1628-1694, Aragoien jaio eta Indioen artean misiolari ibili zen, bertako  
hizkuntzen ikasketa bultzatu zuen, liburuak argitara eman zituen eta indioen lexikoa e.a. zabalduz,  
«Practica de misiones...», «Practicas dominicales y lecciones doctrinales de las cosas más esenciales so-  
bre los Evangelios» Madrid 1686-87.

70. Eusebio AMORT, teologo alemana, 1692-1772, Eliza katolikoari zenbait kritika bideratu ziz-  
kion, adibidez «Demonstratio critica religionis catholicae» Venecia 1744.

71. Carlos SEBASTIAN BERARDI, 1719-1768, kanonista italiarra. Bere obrak: «Gratiani canones ge-  
nuini ab apocryphis discreti...» 4 vol., Turin 1752-1757, «Commentaria in Jus Ecclesiasticum Univer-  
sum», 4 vol., Turin, 1766 eta «Institutiones Juris Ecclesiastici», 2 vol., Turin, 1769.

Nota: La obra de San Pedro Crisologo de núm. 76, y el Houdri del núm. 132, yallegaron al destino que les daba el difunto D. Juan Ba. de Aguirre para despues de mis dias, y por consiguiente nose hallaran á una con la demas libreria. Motrico 14, de ???

Dn Juan Ignacio de Larrondobuno (errubrika)

## VII. JUAN BAUTISTAREN LIBURUETATIK ZEINTZU IRITSI ZIREN ZARAUZKO KONBENTURA?

Lehen transkribitu dudan dokumentuaren azken oharrean Juan I. Larrondobunok dioenez, «**La obra de San Pedro Crisologo de núm. 76 y el Houdri del núm. 132.**» bi autore horien obrak berehala iritsi ziren beren azken helmugara, Zarauzko Fraile Misiolarien liburutegira, alegia. Baina beste 183 obratetik hemezortzi bakarrik izan zuten sorte hori, besteak bidaian galdu baitziren. Bi inbentariotan azaltzen direnak hauexek dira: 36, 48, 51, 77, 79, 82, 83, 84, 85, 93, 97, 103, 105, 131, 138, 139, 152 eta 183 zenbakietako obrak hain zuzen <sup>72</sup>.

Dena den, Mutrikun, Larrondobunoren albazeek gauzatutako inbentarioan 131 obra, hau da J.B. Agirreren ilobak berak eskuratu, osabak utzitakoei gehitu eta haren antzera Zarauzko liburutegirako utzi zituenak sartu zituzten, nahiz osabarenak asko falta diren.

## VIII. BEHIN-BEHINEKO ONDORIO BATZU

Era askotako ondorioak atera daitezke Agirreren liburutegia, Asteasuko erretoretzeko liburuak eta egilearen obrak azal-azaletik gainbegiratu ondoren. Horregatik, behin-behinekoak diot, iraunkor eta sendoagoak azterketa sakonagoak gauzatzeak eta batez ere Asteasuko Agirreren obrak barrendik ikertzeak ekarriko dituelakoan.

Juan Bautista Agirre Trento ondorengo elizgizon, giro horretan erabat murgildurik somatu dut. Garai hartako eta lehenagoko Aita Santu, Kontzilio eta Elizaren dotrinak libururik ugariak zituen eta horrelaxe bere liburuetan berorien aipamenak ere oso ugariak dira.

Asteasuko erretorea teologo eta moralista bikaina zen, bere idazlanak irakurri eta liburutegiko teologi liburuen multzoa zenbatu besterik eztago. Asteasu eta deitzen zioten parroketako artzantzan iharduteko liburu egokiak zituen: liburu aszeptikoak, santuen bizitzak eta espiritualidade liburuak.

Urte luzeetan, etxe berean, elkar-bizitza aberatsean Jose Antonio anaia apaiza eta legegizonarekin bizi izan zen. Bere eragina eta eskaini zion laguntza aztertzeke daude. Zuzenbideko 35 obrak daukaten balore eta esanahiak susmo horren oinarria eman didate.

Azkenik, Juan Bautista euskal herrietako apaizen sermoilari estimatua izan zen, horretarako altxor preziatua bere liburutegian zuelarik. Hiztegiak bazituen latinetik euskara, frantsesa, gaztelera, italiera... Hizkuntza horietan argitaratu ziren azken fruituak ere bere liburutegian zeuden.

72. Ikus Zarauzko Frantziskotarren konbentuko liburutegiko lehen aipatutako erreferentzia.

Gainera, Mogel adiskidearen obra, Mendiburu lagunaren sermoiak eta Zarauzko Misiolarien lankidetzeta eta harreman hestruak mantentzen zituen<sup>73</sup>. Bukatzeko, bere liburutegian zituen Zizeronen **opera omnia** zenbat aldiz irakurri ote zituen?

## LABURPENA

Juan Bautista Agirre Elola euskal idazleak, 1819an, azken testamentu olografoan Zarauzko Frantziskotarren liburutegira destinatu zituen bere liburuak, Juan Inazio Larrondobuno ilobaren medioz. Liburu horien ibilbideari jarraitu natzaio, Asteasutik 1823an abiatu, ilobak berak Mutrikun liburutegi hori gozatu ea 1868 urtean Zarauzko Frantziskotarren liburutegira iritsi arte. Liburu horien inbentarioa, sailkapena eta zenbait iruzkin egin ondoren, behin-behineko ondorio batzuetara iritsi naiz Juan Bautista Agirre Elolaren hainbat donaini buruz.

## RESUMEN

El escritor vasco Juan Bautista Agirre Elola, en su último testamento ológrafo de 1819, dejó su biblioteca a los Franciscanos de Zarauz a través de su sobrino Juan Ignacio Larrondobuno. He seguido la trayectoria de esos libros desde su salida de Asteasu en 1823, pasando por Motrico donde los utilizó el sobrino, hasta su llegada a la biblioteca de los Franciscanos de Zarauz en 1868. En este artículo, después de hacer el inventario, clasificación y algunas reseñas de dichos libros, concluyo con unas afirmaciones provisionales sobre las donaciones de Juan Bautista Agirre Elola.

## RÉSUMÉN

Selon son dernier testament olographe de 1819, l'écrivain basque Juan Bautista Agirre Elola laissa sa bibliothèque aux Franciscains de Zarauz par le biais de son neveu Juan Ignacio Larrondobuno. J'ai suivi la trajectoire de ces livres depuis leur départ d'Asteasu en 1823 jusqu'à leur arrivée à la bibliothèque des Franciscains de Zarauz en 1868, ainsi que leur passage à Motrico où le neveu les utilisa. Après en avoir fait l'inventaire et la classification, ainsi que le compte rendu de quelques uns de ces livres, je conclus dans cet article par quelques affirmations provisoires sur les donations de Juan Bautista Agirre Elola.

## ABSTRACT

According to Juan Bautista Agirre Elola's last holograph will, dated in 1819, the Franciscans of Zarauz inherited from this basque writer his private library through his nephew Juan Ignacio Larrondobuno. I have followed the track of those books from 1823, when the writer left Asteasu, passing through Motrico, where his nephew made use of them, until 1868, when they ended up at the Franciscans' library in Zarauz. The present article comprises the inventory, the classification and some reviews of these books, and concludes with some provisional comments on the donations made by Juan Bautista Agirre Elola.

73. Pello Joxe ARANBURU, 1995, «Juan Bautista Agirre Elola eta Asteasu, 1742-1823», Gertu.